



EUSKADIKO HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREARI BURUZKO LEGE PROIEKTUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.
2. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak.
3. artikulua.- Gizarte-ekimeneko erakundeak.
4. artikulua.- Esku-hartze sozialeko jarduerak eta interes orokorreko gizarte-jarduerak.
5. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen errolda.
6. artikulua.- Printzipioak.

II. KAPITULUA

ELKARRIZKETA ZIBILA ETA SEKTORE PUBLIKOAREKIN ETA BESTELAKO AGENTEEKIN ELKARRIZKETAN ARITZEKO BESTELAKO BALIABIDE EDO GUNEAK

7. artikulua.- Elkarrizketa zibila.
8. artikulua.- Euskal herri-administrazioetako kontsulta-organoetan eta horien ekintzaren orientazioarekin lotutako aldiak aldiko ekimenetan parte hartzea.
9. artikulua.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean parte hartzea.

III. KAPITULUA

LANKIDETZA ETA ELKARLANA ESKU-HARTZE SOZIALAREN ESPARRUKO POLITIKAK EGIKARITZEAN

10. artikulua.- Lankidetza erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarreraginerako guneeetan.
11. artikulua.- Lankidetza erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarreraginerako guneen kudeaketan.
12. artikulua.- Lankidetza erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan.
13. artikulua.- Lankidetza erreferente-funtzioan eta kasu-koordinazioan.

14. artikulua.- Lankidetza interes orokorreko bestelako gizarte-jardueretan.
15. artikulua.- Herri-administrazioen eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana formalizatzeko tresnak.
16. artikulua.- Euskal herri-administrazioekin lankidetzan eta elkarlanean aritzen diren Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen betebeharrak.

IV. KAPITULUA

HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREAREN SUSTAPENA

17. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia.
18. artikulua.- Euskal herri-administrazioen beste maila batzuk sustatzeko neurriak.
19. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko neurriei buruzko txostena.
20. artikulua.- Erakundeek abiarazitako gizarte-jarduerak –interes orokorrekoak eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaz bestelakoak– sustatzeko ekintzak gauzatzeko dituzten beste agente batzuei laguntzea eta horiekin lankidetzan aritzea.
21. artikulua.- Erakundeen azpiegiturak garatzen, inbertsioak egiten, kudeaketa hobetzen eta jarduera ekonomikoa bultzatzen laguntzeko neurriak.
22. artikulua.- Hirugarren Gizarte Sektorearen aitorpena, ekarpena eta egituraketa, eta erakunde eta sareen arteko lankidetza bultzatzea.
23. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen ekarpena aitortzea eta sektore publikoko bestelako neurriek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorean duten inpaktua ebaluatzea.
24. artikulua.- Euskal herri-administrazioek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen eta enpresen arteko lankidetza sustatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Lehena.- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia
- Bigarrena.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia
- Hirugarrena.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eroldaren erregulazioa.

AZKEN XEDAPENAK

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, 9.2 artikuluan, gizabanakoen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen lortzeko baldintzak sustatzeko eta oztopoak ezabatzeko neurriak hartzeko betebeharra esleitzen die euskal botere publikoei, eta baita herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten faboratzeko betebeharra ere.

Zehazkiago, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren erregimenaren ikuspegitik, Autonomia Estatutuaren 10.12, 10.13, 10.23 eta 10.39 artikuluek Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen eskusiboa ematen diote, batetik, gizarte-laguntzaren alorrean, eta bestetik, irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza-, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazioen eta elkarteen alorrean (betiere eginkizunak nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen badituzte), kooperatiben alorrean eta komunitatearen garapenaren alorrean, hurrenez hurren.

Euskal gizarteak gizarte-sare zabala, plurala eta aktiboa izan du eta izaten jarraitzen du; gizarte-sare hori herritarren ekimen libretik sortzen diren erakundeez osatuta dago, eta horrez gain, herritarren elkartasun antolatua eta gizarte-partaidetza kanalizatzen dituzte erakunde horiek, baita gizarte-izaerako egoera, arazo edo premiaren baten eraginpean dauden pertsona, familia, talde edo komunitateen elkartasun antolatua eta gizarte-partaidetza kanalizatu ere. Hirugarren Gizarte Sektoreaz ari gara.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea txertatu zuen, nahiz eta ez zuen zehaztu, eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzeko abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuak, halaber, "gizarte-ekintzako hirugarren sektorea" honela definitzen du: *"gizarte-ekintzako hirugarren sektorea erakunde pribatu jakin batzuek osatzen dute: erakunde pribatu horiek formalki antolatuta daude, ez dute irabazteko asmorik eta, nagusiki, gizarte-elkartasuna sustatzen dihardute, hala nola pertsonen partaidetza soziala, gizarte-eskubideak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatzen Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan"*.

Lege honen ondorioetarako, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea osatzen duten erakundeek honako ezaugarri hauek dituzte: nortasun juridikoa dute; boluntariotza-ekintzakoak dira; irabazi-asmorik ez dute; pribatuak dira eta beren burua gobernatzen dute; egoitza Euskadin dute eta jarduera Euskadin gauzatzen dute; ahulezia- edo bazterkeria-egoeran, babesgabetasun-egoeran edota mendetasun-egoeran dauden pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen eskubideen benetako erabilera eta gizarteratzea sustatzeko helburu nagusia dute; horretarako, esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzen dituzte, eta halakotzat hartzen dira gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen

sustapena eta pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen gizarteratzea bultzatzeko jomuga duen beste edozein jarduera, xede horrekin esparru, politika eta sistemen elkarreraginerako guneetan gauzatutakoak barne, esate baterako, gune soziolaboralean, bizileku- eta gizarte-alorrekoan, hezkuntza- eta gizarte-alorrekoan, soziosanitarioan, soziojudizialean edota soziokulturalean, besteak beste.

Horrenbestez, Hirugarren Gizarte Sektorearen barnean Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea sartzan da, hots, gizarte-zerbitzuen esparrua eta gizarte-ekintzako esparrua, zentzu zorrotzean; baina haraindi doa, zentzu zabalean gizarte-politiketan kokatuta dauden beste hainbat esparru ere hartzen baititu, hala nola enplegua edo diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistema.

Hirugarren Gizarte Sektorea gizarte-ekimeneko erakundeek osatzen dute; erakunde horiek euskal gizartearen sortzen dira, bazkide eta boluntarioz ez ezik, askotan ordaindutako langileez ere osatuta dagoen oinarri soziala dute, eta esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzen dituzte.

Erakunde horiek adineko pertsonen, emakumeen, desgaitasunak dituzten pertsonen, langabeen, gaixotasunen bat duten pertsonen, etorkinen eta abarren alde egiten dute lan, edo horrelako kolektiboetako pertsonen osatuta egon ohi dira.

Horrelako erakundeek premiei eman beharreko erantzuna eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak konbinatzen dituzte, kritikarako, salaketarako eta alternatibak proposatzeko gaitasunarekin, eta funtsezko ekarpena, ekarpen bereizgarria, eginez honako hauei: a) ematen dituzten zerbitzuen xede diren pertsona, familia, talde eta komunitateei, eskubideak sustatzeari eta benetan erabiltzeari eta gaitasunak eta bizi-proiektuak garatzeari dagokienez, betiere ahalik eta autonomiarik handiena utziz; eta b) euskal gizarte osoari, elkarrekiko elkartasun eta laguntzari, partaidetzari, gizarte-kohesioari, gizarte-politikak eta erantzukizun publikoko sistemak sustatzeari, zerbitzu-hornikuntzari (hots, horrelako zerbitzuak diseinatzea, ematea, ebaluatzea eta hobetzea) eta gobernantzari dagokienez.

Ondorioz, Hirugarren Gizarte Sektorea euskal gizartearen funtsezko aktiboa da, batetik, edozein egoeratan (bereziki, ekonomiaren, politikaren, erakundeen, gizartearen eta balioen alorretan egun pairatzen ari garen krisialdiko egoeran) bidezkoa, solidarioa, kohesionatua, partizipatiboa eta demokratikoa izango den gizarte gisa eratzeko; eta bestetik, gizarte-premiei modu egokiagoan erantzuteko, hots, modu integral, gertuko, pertsonalizatu eta partizipatiboan (besteak beste), betiere sektoreen arteko lankidetzan oinarrituta eta pertsona, familia, kolektibo eta komunitate jasotzaileen partaidetzarekin.

Halaber, Hirugarren Gizarte Sektoreko elkarteek kapital garrantzitsua bideratzen dute (kapital soziala, giza kapitala eta harremanekin loturikoa). Horrez gainera, jarduera ekonomiko garrantzitsua gauzatzen dute, eta horren

bitartez, itzulera ekonomiko eta soziala sortzen dute; horrela, enplegu-sorreran intentsiboak dira erakunde horiek, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan eta enpleguaren alternatiben sorreran lagunduz eta laneratze-prozesuetan lagun eginez, nagusiki, desgaituen eta gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen dagokienez.

Bestalde, Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek sareak osatu ohi dituzte, bigarren mailako beste erakunde batzuekin elkartuz (zehazkiago, federazioekin, elkarteekin eta antzekoekin). Euskal Autonomia Erkidegoan, aurrera egiten ari gara Hirugarren Gizarte Sektoreko Euskadiko sare guztiak sareen sare batean elkartzeari dagokionez.

Euskal sektore publikoarekiko loturari gagozkiola, erakunde horiek erantzukizun publikoko sistemetan parte hartu dute eta parte hartzen jarraitzen dute, gizarte-zerbitzuen sisteman, enplegu-sisteman, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sisteman eta esku-hartze sozialarekin loturiko sistemen —esaterako, hezkuntza-sistemaren eta osasun-sistemaren— arteko elkarreraginerako guneetan duten presentzia oso esanguratsua izanik, sortu zirenez geroztik. Horrela, erantzukizun publikoko sistemak (etxebizitza-politikekin gertatzen den bezala) edota osasun- eta hezkuntza-sistemak osatzen dituzte, eta hori ez ezik, sistema horien eraikuntzan, finkatzean eta zabalkundeetan parte hartzen dute. Modu horretan, Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuen hornikuntzan laguntzen dute, Europako erreferentziatzko araudian horiek zehazten diren moduari jarraiki, eta baita zerbitzu-hornikuntzaz bestelako interes orokorreko beste hainbat jardueratan ere.

Era berean, euskal herri-administrazioak Hirugarren Gizarte Sektorearekin elkarlanean aritzen dira, honako hauek faboratzeko: boluntariora, elkarrekiko laguntza eta gizarte-partaidetza; familien gizarte-ekarpena, ahaide zaintzaileen zaintza, eta herritartasun aktiboa ahalbidetzen eta gizarte-partaidetza faboratzen duen kontziliazioa; eta biztanleria guztiaren gizarteratzearen alde erakundeek gauza ditzaketen bestelako interes orokorreko gizarte-jarduerak.

Gizarteratzea, eskubideen benetako erabileraren emaitza izateaz gain, ondasun nazionala ere bada, pertsonen, familien eta sozializaziorako eta laguntza informalerako bestelako agenteen, gizarte-ekimeneko erakundeen, sektore publikoaren eta enpresen arteko askotariko elkarreraginen emaitza den ondasun nazionala, hain zuzen ere. Arestian aipaturiko gizarteko lau sektore handi horiek indartzea eta horien arteko lankidetzak maximizatzea (bakoitzak bere eginkizunak gauzatu) ezinbesteko helburua da aukera-berdintasunean eta gizarteratzean aurrera egiteko.

Bestalde, gizarte-ekimeneko erakundeek, gizarte zibiletik sortzen direla eta bazkide eta boluntarioz osatutako gizarte-oinarria ez ezik, pertsona eta familia hartzaileen partaidetzarako (izan ere, batzuetan zuzenean horrelako pertsona eta familiek osatzen dute erakundea bera) mekanismoak ere badituztela kontuan izanik, gizarte-politika publikoetan herri-administrazio eskudunekin

lankidetzan eta elkarlanean aritzeko bokazioa eta zilegitasuna dute, horrelako politiken fase guztietan, baita politikak gauzatzeko fasean ere.

Orobat, sektore publikoak, eta zehazkiago, gobernuaren ekintzak, berriz asmatu behar dute beren burua, eta gizarte zibilarekiko harreman-modu berriak hartu behar dituzte kontuan, administrazio irekiko eredu batean, eta hortik haraindi, gobernantza eta gizarte partizipatiboko eredu batean aurrera egitea ahalbidetzen duten harreman-modu berriak, hain zuzen, betiere demokrazian sakonduz. Horri dagokionez, Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak sektore publikoarekin elkarlanean aritzen dira eta aritu behar dute gizarte-politika publikoen gaineko erabakiak hartzeko lanean, eta baita gizarte- eta garapen-ereduari buruzko gizarte-etzabaidan parte hartu ere.

Horretarako, ezinbestean indartu behar da Hirugarren Gizarte Sektorearen egituratzea, erakunde-sareen eta horien konbergentziaren bitartez, eta gainera, elkarrizketa zibila (gizarte zibilak sektore publikoarekin gauzatutakoa) eta gizarte-sektore eta -agenteen elkarrizketa (gizarte- eta garapen-ereduari eta bakoitzaren ekintzari buruzkoa) bultzatu behar da. Horretarako, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea euskal sektore publikoarekin eta beste hainbat sektore eta agenterekin elkarrizketan eta lankidetzan aritzeko baliabideak finkatzen ditu Lege honek; horrez gainera, Hirugarren Gizarte Sektoreko sareek Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean parte hartzeko aukera kontuan hartuz.

Hori guztia, Europar Batasunaren zuzentarauekin bat etorrira, Europar Batasuna Sortzeko Itunak (11. artikulua), Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak (15. artikulua) eta Europar Gobernantzaren Liburu Zuriak –COM (2001), 428 amaiera– oinarri bat ematen baitute, gizarte-ekimenak arazo publikoetan izan beharreko elkarrizketa zibila, gobernantza eta partaidetza zabaltasunez funtsatzeko oinarri bat, hain zuzen ere.

Zehazkiago, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak honako hau ezartzen du Zioen Azalpenean: *“Gero eta egoera desberdin gehiago daude eta gero eta konplexuagoak dira egoera horiek; nabaria da, beraz, haiei aurre egingo bazaie, jardun batzuk indartu behar direla, honako hauek: hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea, laguntzako sare informalei eustea, eragindako pertsonen partaidetza antolatua sustatzea, sistemen arteko lankidetzak eta koordinazio-esparru batzuk (hala nola, gizarte eta osasunaren, gizarte eta lanaren, gizarte eta etxebizitzaren, gizarte eta hezkuntzaren, gizarte eta justiziaren, gizarte eta kulturaren artekoak) eratzea eta politika sozial bat garatzea, herritar guztiak herritartasun osoa irits dezaten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kausei ekin dakien”*.

Lege hau, lehen kapituluan, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea deskribatzen eta taxutzen hasten da; horrela, esku-hartze sozialaren esparruan jarduerak gauzatzen dituzten gizarte-ekimeneko erakundeez osatuta egongo da Hirugarren Gizarte Sektorea, esparru horretan Interes Orokorreko Gizarte

Zerbitzutat hartzen diren erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan parte hartzekoak barnean hartuta.

Horrela, aurrera egiten da erakundeen definizio positiboan, eta hirugarren sektore edo irabazi-asmorik gabeko edo gobernuz kanpoko sektore gisako definizioaz eta iraganeko eta egungo ekarpenaz haraindi doa definizio berria. Bestalde, legeak bereziki aitortu eta sustatu nahi du ekarpen hori gizarte-zerbitzuen esparruan eta enplegu-sustapenaren esparruan, eta baita esku-hartze sozialarekin loturiko hainbat esparru eta sistemaren arteko elkarreraginerako guneetan ere (soziosanitarioa, soziolaborala, hezkuntza- eta gizarte-alorrekoa, besteak beste). Erakundeen ezaugarriak ezarri ondoren, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen errola bat sortzea aurreikusten da, erakundeen estatutuaren euskarri diren eta erakunde horien nahiz sektore publikoak eta enpresek erakunde horiei dagokienez gauzatzen duten ekintzaren berri ematen duten printzipioak finkatzeaz gain.

Alor honetan, baditugu kontuan hartu beharreko zenbait kontzeptu; gizarte-partaidetza, elkartasuna eta justizia, gizarteratzean izan beharreko erantzukizun publikoa eta erantzukidetasuna, elkarrizketa zibila eta demokrazia partizipatiboa (gubernantza), sektore publikoaren eta gizarte-ekimenaren arteko lankidetzeta eta gizarteratzerantz bideratutako jardunen zeharkakotasuna. Kontzeptu horiek guztiak oinarritzen dute, ildo horretan, eta esku-hartze sozialaren esparruan, erakunde horiek erantzukizun publikoko politiketan eta sistemetan parte hartzeko duten eskubidea, eta baita sektore publikoak horien partaidetza aktiboki faboratzeko eta sustatzeko betebeharra ere.

Esku-hartze sozialaren esparruak, dituen ezaugarriak direla-eta, eta gizarteratzeak, helburu gisa, gizarte-sektore guztiak elkartzea eta lankidetzan aritzea eskatzen dute.

Gizarte-partaidetza antolatua herritartasun aktiboaren adierazpena da, eta gizarte zibil heldua eta demokrazia partizipatiboa eratzen laguntzen du. Gainera, esku-hartze sozialaren esparruan, elkartasunaren eta elkarren arteko laguntzaren adierazpena da, eta funtsezko baliabidea da, pertsona, familia, kolektibo eta komunitate hartzaileek beren ahotsa entzunarazteko, beren gaitasunak garatzeko eta beren egoera aldatzeko aukera izan dezaten, protagonistak bilakatuz.

Sektore publikoaren eta gizarte-ekimeneko erakundeen lankidetzeta esku-hartze sozialaren esparruan oso lotuta dago bi alderdiek gauzatzen dituzten egitekoekin, besteak beste, gizarte-premiak detektatzea edo ebaluatzea, zerbitzuak ematea, sentsibilizazioa edota eskubideak sustatzea. Bi euskarri ditu lankidetzeta horrek: batetik, gizarte-ekimenak politika publikoetan parte hartzeko duen boterea, eta gizarterari egiten dion ekarpenaren garrantzi handia; bestetik, gizarte-eredu jakin bat, antolatua, aktiboa eta demokrazia partizipatibokoa. Horrez gain, gizarteran ezarrita dauden eta babestu eta bultzatu behar diren

baliabide eta gaitasunen eraginkortasun eta aprobetxamendu handiagoa dakar berekin, modu subsidiarioan.

II. kapituluak elkarrizketa zibilaren printzipioa aitortzen du; horrela, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreak esku-hartze sozialaren esparruan politika publikoak sortzeko, egikaritzeko, horiei jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko eginkizunetan izan beharreko partaidetza zehazten da. Halaber, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakunde guztietan ezartzen da eta guztietara zabaltzen da jarraian adierazitako lege-testuek desgaituen eta horien familien ordezkari diren erakundeetarako ezartzen duten eskumena; batetik, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren 4.3 artikulua; eta bestetik, Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, 2. artikuluko n letran elkarrizketa zibilaren printzipioa finkatzen duelako.

Besteak beste, Hirugarren Gizarte Sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketarako gune nagusia den Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen bitartez antolatzen da partaidetza hori.

Horrela, gizarte-sektorearen eta sektore publikoaren eta bestelako hainbat gizarte-agenteren arteko elkarrizketarako guneak finkatzen ditu legeak, betiere esku-hartze sozialaren esparruan. Hori ez ezik, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreak arautze-prozesuetan eta gizarte-politika publikoak diseinatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko eginkizunetan izan beharreko partaidetza aktiboa ere finkatzen du legeak.

III. kapitulan, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreak euskal sektore publikoarekin izan beharreko harremanaren gunea eta irismena zehazteko eginkizunean aurrera egiten du Legeak. Horrela, Legeak ezartzen du esku-hartze sozialaren esparruko politikak egikaritzeko eginkizunean lankidetzan eta elkarlanean oinarrituta egon behar duela harreman horrek, betiere elkarrizketa zibilaren printzipioarekiko koherentziari eutsita.

Horri dagokionez, legeak honako bi eginkizun hauek ezinbestekoak direla zehazten du: batetik, lankidetzan jardutea, lehenik, erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarreraginerako guneen kudeaketan, eta bigarrenik, erantzukizun publikoko zerbitzuak ematean, kasu-erreferentziako eta -koordinazioko eginkizunak gauzatzean, eta pertsona eta familien lagun-egite sozialean; eta bestetik, erantzukizun publikoko zerbitzuak emateaz bestelako eta interes orokorreko hainbat gizarte-jarduera gauzatzen laguntzea.

Lankidetzan- eta laguntza-harreman hori antolatzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako honako hiru baliabide hauei lotzen zaie: gizarte-kontzerturako erregimen bereziei, hitzarmenei eta lankidetzarako esparru-

akordioei. Bestalde, herri-administrazioekin lankidetzan aritzen diren Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek beren gain hartu beharreko betebeharrak ere ezartzen ditu, gizarte-ekimeneko erakunde gisa dituzten forma juridiko eta ezaugarrietatik datozen betebeharrekin batera, horrelako erakundeetan kudeaketa etiko eta gardena bermatzeko ez ezik, gizarteak erakunde horiei dien konfiantzari eusteko eta konfiantza hori indartzeko ere bai.

IV. kapituluan, sektore publikoak Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko gauzatu beharreko ekintza jasotzen du, euskal gizartean elkartasun antolatua, gizarte-sarea eta gizarte-partaidetza sendotzen laguntzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak Euskadin Hirugarren Gizarte Sektorea bultzatzeko Estrategia bat lantzeko eta eguneratzeko konpromisoa hartzen du bere gain.

Besteak beste, honako hauek ezartzen dira: azpiegiturak garatzen laguntzeko neurriak, inbertsioak egitea, kudeaketa hobetzea, eta azkenik, erakundeen jardura ekonomikoa, Hirugarren Gizarte Sektorearen aitorpena, ekarpena eta egituraketa, eta erakunde eta sareen arteko lankidetzak bultzatzea.

Azkenik, enpresa-sektorearen eta Hirugarren Gizarte Sektorearen artean esku-hartze sozialaren esparruan gauzatutako lankidetzari dagokionez, euskal herri-administrazioek lankidetzak hori sustatu behar dutela ere jasotzen da. Horretarako, lankidetzak hori garatzeko baldintzak sortzeko hainbat neurri ezartzen dira. Horrela, sektoreen arteko elkarlanean aurrera egin nahi da, gizartea bidezkoagoa, solidarioagoa eta demokratikoagoa izan dadin bultzatzeko oso beharrezkoa baita elkarlan hori, eta baita gero eta korapilatsuagoak diren gizarte-premiei eta gizarte globalaren erronkei erantzuteko ere.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Lege honen xedeak honako hauek dira: lehenik, Hirugarren Gizarte Sektorea eratzea eta bere ezaugarriak ezartzea, hura osatzen duten erakunde eta sareen bitartez; bigarrenik, erakunde eta sare horiek indartzeko neurriak hartzea eta sustatzea; hirugarrenik, erakundeen lankidetzak eta elkarlana bultzatzea, elkarrekiko lankidetzak eta elkarlana, eta sektore publikoarekin nahiz enpresekin izan beharrekoa; eta azkenik, Hirugarren Gizarte Sektoreak egin beharreko ekarpena sustatzea, orokorrean, esku-hartze sozialean, eta zehazkiago, esparru horrekin lotutako erantzukizun publikoko politika eta sistemetan.

2. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak.

1.- Lege honen ondorioetarako, honako ezaugarri hauek dituzten gizarte-ekimeneko erakundeek osatzen dute Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea: egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dute eta jarduera EAEn gauzatzen dute; ahulezia- edo bazterkeria-egoeran, babesgabetasun-egoeran edota mendetasun-egoeran dauden pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen eskubideen benetako baliatzea eta gizarteratzea sustatzeko helburu nagusia dute, esku-hartze sozialeko jardueren bitartez.

2.- Lege honen ondorioetarako, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko saretzat honako hauek hartuko dira: batetik, bigarren mailakoak edo hortik goragokoak izanik, beste erakunde batzuek ordezkatzeko dituztenak; eta bestetik, Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak, zuzeneko esku-hartzekoak, betiere kolektibo jakin bat ordezkatzeko badute, eta dagokion jardun-esparru edo -lurralde geografikoan kolektibo hori ordezkatzeko duen sarerik ez dagoenean.

3.- Lege honen ondorioetarako, eta salbuespen gisa, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen barnekotzat hartuko dira ondoren deskribatutako erakunde motak, betiere esku-hartze sozialeko jarduerak gauzatzen badituzte, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sare baten barnean badaude eta sare horren kodeetara egokitzen badira, eta baita lege honen 16. artikuluan jasotako betebeharrak egokitzen badira ere:

a) Ongintzazko fundazio eta erakunde historikoak, EAEn 50 urtetik gorako ibilbidea badute, baita gobernu-organoetako presentzia handiena administraziokoa bada ere, halako presentzia aurreikusi zelako fundazio edo erakundearen jatorrizko estatutuetan, fundazio-ondarea osatu zuten legatuak kudeatzeko bermeak ezartzeko.

b) Hirugarren Sektoretik kanpoko forma juridikoak dituzten erakundeak, gobernu-organoak partaidetuta badaude, gehiengoz, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekin, eta azken horien gizarte-helburua betetzeko eratu baziren.

3. artikulua.- Gizarte-ekimeneko erakundeak.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen barneko gizarte-ekimeneko erakundeak dira formalki eratuta egonik, eta berezko izaera juridikoa izanda, ondoren deskribatutako ezaugarriak dituzten gizarte-ekimeneko fundazioak, elkarteak, kooperatibak eta bestelako edozein erakunde:

a) Ekintza boluntariokoa: boluntarioz, bazkidez, gobernu-organoetako pertsonen, edo erakundean boluntario gisa laguntzen duten bestelako pertsonen osatutako gizarte-oinarria duena, erabat edo partzialki.

b) Gizarte zibilaren zati dena eta gizarte zibiletik eta gizarte zibilerako sortzen dena: euskal gizartetik sortzen da, sortu zenez geroztik, lurraldearekiko eta

bere jardueraren jasotzaile diren pertsona, familia, talde, kolektibo eta komunitateekiko lotura eta konpromiso egonkorrari eusten dio, edo pertsona eta familia jasotzaileek zuzenean sortua da, eta pertsona-kolektibo zehaztugabeei zuzenduta dago, eta ez pertsona jakin batzuei.

c) Pribatua: instituzionalki administratibotik bereizita eta autogobernua oinarrituta dago, eta gehiengoz irabazi-asmoa duten enpresek edo erakunde publikoek partizipatutako gobernu-organorik ezin du izan, aurreko artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

d) Irabazi-asmorik gabekoa: mozkin ekonomikorik banatzeko jomuga ez du, eta dagokion figura ekonomikoa dela-eta, betebeharrak bat dauka, lor dezakeen edozein mozkin erakundearen misioan berriz inbertitzekoa, hain zuzen ere; beste modu batean esanda, ezin ditu lortzen dituen mozkinak banatu.

e) Partizipatiboa: erabakiak hartzeko partaidetza-formak hartzen ditu, dagokion forma juridikoari aplikatu beharreko araudiak ezartzen duenari jarraiki.

4. artikulua.- Esku-hartze sozialeko jarduerak eta interes orokorreko gizarte-jarduerak.

1.- Esku-hartze sozialeko jardueratzat edo esku-hartze sozialeko esparruko jardueratzat hartuko dira ahulezia- edo bazterkeria-egoeran, babesgabetasun-egoeran, desgaitasun-egoeran edota mendetasun-egoeran dauden pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideen benetako baliatzea eta gizarteratzea sustatzeko helburuarekin gauzatzen diren jarduerak.

2.- Zehazkiago, esku-hartze sozialeko jardueratzat hartuko dira arestian adierazitako helburuarekin gauzatzen diren gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidearen sustapena eta beste edozein jarduera, betiere esparru, politika eta sistemen elkarreraginerako guneetan gauzatzen badira, esate baterako, gune soziolaboralean, bizileku- eta gizarte-alorrekoan, hezkuntza- eta gizarte-alorrekoan, soziosanitarioan, soziojudizialean edota soziokulturalean, besteak beste.

3.- Interes orokorreko gizarte-jardueratzat hartuko dira irabazi-asmorik gabeko erakundeek abiarazita, langile ordainduak edota boluntarioek irabazi-asmorik gabe eta askatasunez gauzatzen dituzten esku-hartze sozialeko jarduerak. Zehazki, halakotzat hartuko dira honako hauek:

a) Eragina (sentsibilizazioa, salaketa, arauak lantzeko edo aldatzeko prozesuetako partaidetza, edota sektore publikoarekiko edo bestelako gizarte-agenteeekiko elkarrizketa).

b) Elkartasun antolatua eta herritarren gizarte-partaidetza (zehazki, gizarte-boluntarioena), elkarrekiko laguntza, eta hartzaileen asoziazionismoa sustatzea eta antolatzea.

c) Premiak detektatzea, ikerketa eta berrikuntza.

d) Erantzukizun publikoko zerbitzuz edo erantzukizun publikoaz bestelako zerbitzuz hornitzea (diseinatzea, ematea, ebaluatzea eta hobetzea), eta esku-hartzeko bestelako jarduerak edota proiektuak gauzatzea.

4.- Esku-hartze sozialaren esparruko erantzukizun publikoko prestazioak eta zerbitzuak Interes Orokorreko Zerbitzuak dira, eta zehazkiago, Interes Orokorreko Gizarte Zerbitzuak (askotan izaera ekonomikoa izan ohi dute), Europar Batasunaren erreferentziazko araudian kontzeptu horiek definituta dauden moduan, euskal herri-administrazioek zuzenean ematen dituztenean, eta baita euskal herri-administrazioek ekimen pribatuaren laguntza duten kasuetan ere.

5. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen errolda.

Gizarte-politiken alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen errolda publiko bat sortuko du eta eguneratuta edukiko du. Errolda hori Boluntariotza Erakundeen Erroldarekin koordinatuko da eta erregelamendu bidez arautuko.

6. artikulua.- Printzipioak.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak ondoren deskribatutako printzipioen eraginpean egongo dira, eta baita erakunde horiek beren kabuz edota bestelako erakundeekin edo sektore publikoarekin lankidetzan gauzatutako jardunak ere:

a) Gizarte-partaidetza.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek beren gizarte-oinarria indartuko dute, hori mantentzeko edo areagotzeko eta beren barne-bizitzan eta kanpo-jardueran kolektiboen partaidetza aktiboa faboratzeko jomuga duten ekintzak gauzatuz.

Bigarren mailako edo hortik gorako erakundeek bultzatu eta sendotu egingo dute beren baitako partaidetza, beren jardueraren hartzaille diren pertsonen erakundeen, eta orokorrean, hiri- eta gizarte-erakundeen (besteak beste, emakumeen, gazteen eta familien erakundeen), nahiz erakunde txikiagoen partaidetza, hain zuzen ere.

Irabazi-asmoa duten enpresek, esku-hartze sozialaren edozein esparrutan ekimenak sustatzen dituztenean edo horrelako ekimenetan laguntzen dutenean, irabazi-asmorik gabeko figura juridikoen bitartez jokatu dute, figura juridiko horiek beraiek eratuak izanik, edo ahal dela, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekin lankidetzan. Edonola ere, boluntariotza korporatiboko programak Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekin lankidetzan garatuko dira.

Herritarrek esku-hartze sozialaren esparruan parte har dezaten bultzatuko du (gizarte-partaidetza) sektore publikoak, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen bitartez, eta horrez gainera, gizarte-sarea indartuko du, erakunde eta sareak sustatzeko ekintzen bitartez.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen arduradunak diren herri-administrazioek nahiz horien hornikuntzan parte hartzen duten hirugarren sektoreko erakundeek eta irabazi-asmoko enpresek erabiltzaileen zuzeneko partaidetza sustatuko dute, horien antolamendua eta zerbitzuetan parte hartzeko talde-dinamikak bultzatuz, baita sistema klasikoak eta indibidualizatuagoak ere (hala nola kexa eta iradokizunetarako postontziak edota gogobetetze-inkestak, besteak beste).

b) Elkartasuna eta justizia.

Sektore publikoak nahiz Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek elkarrekiko boluntarioritza eta laguntza sustatuko dute. Era berean, erantzunen profesionalizazioan ere aurrera egiten jarraituko dute, zerbitzuak langile ordainduen bitartez emanez eta langileei (boluntarioei eta ordaindutako langileei) prestakuntza eskainiz, baita elkarrekiko laguntzako jardueretan parte hartzen dutenei dagokienez ere.

Sektore publikoak eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek (azken horiek, zuzenean edota parte hartzen duten bigarren mailako edo hortik gorako erakundeen bitartez) hartzaileen premiei eman beharreko erantzuna (zerbitzuen eta bestelako jardueren bitartez) konbinatzen jarraituko dute bestelako hainbat jarduerarekin, besteak beste, hartzaileen eskubideen aitorten, defentsa eta erabilpenera zuzendutakoak, edota gizarte-eraldaketara zuzendutakoak, betiere aukera-berdintasunean, sarbide unibertsalean, partaidetzan eta gizarteratzean oinarrituta, esaterako, premien detekzioa eta ebaluazioa, sentsibilizazioa, salaketa, alternatiba-proposamena edota arauak lantzeko prozesuetako partaidetza.

Halaber, arrazoia edozein izanik erantzukizun publikoko sistemetan sartzen ez diren pertsonengan arreta berezia jarriko dute; ildo horretan, ahaleginak egingo dituzte horrelako pertsonen premia funtsezkoenak inolaz ere bete gabe gera ez daitezen, eta gizarteratze-prozesuak hasteko laguntza izan dezaten, betiere sektore publikoarekin lankidetzan jardunda.

c) Erantzukizun publikoa eta erantzukidetasuna gizarteratzean.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek eta herri-administrazioek eskubideen benetako erabilerara zuzendutako jarduna bermatuko dute, enplegurako, etxebizitzarako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarretarako sarbidea ahalik eta gehien faboratzen lagunduko dute, erantzukizun publikoko sistemen finkapena eta zabalkundea sustatuko dute eta era berean, familien sostenguan eta babesean lagunduko dute, baita elkartasunerako, elkarrekiko

laguntzarako eta laguntza informalerako bestelako sareen sostengu eta babesean ere.

d) Elkarrizketa zibila eta demokrazia partizipatiboa (gobernantza).

Euskal herri-administrazioek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeei eta sareei aukera emango diete administrazioako jardun-esparru guztietan beren iritzia publikoki elkarri adierazteko, eta erakunde eta sare horiekin elkarrizketa irekia, gardena eta ohikoa izango dute gizarte-politiken gainean; horretarako, elkarrizketa zibileko mahaiak abiaraziko dituzte, eta kontsulta-organoetan edo horretarako abiarazitako prozesu espezifikoetan parte hartuko dute.

e) Sektore publikoaren eta gizarte-ekimenaren arteko lankidetzak.

Euskal sektore publikoak eta Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek egun gauzatzen duten lankidetzak eta elkarlana sostengatzeko, formalizatzeko eta sustatzeko beharrezko baldintzak sustatuko dituzte, erantzukizun publikoko jarduerari eta interes orokorreko bestelako jarduerari dagokienez, eta baita lankidetzak eta elkarlanerako modu eta tresna berriak garatzeko eta egun ditugunak esku-hartze sozialeko esparru berrietara eta erantzukizun publikoko sistema berrietara zabaltzeko beharrezko baldintzak ere.

f) Gizarteratzera bideratutako jardunen zeharkakotasuna.

Esku-hartze sozialaren esparruan planak, programak eta ekintzak garatzen dituztenean, erantzukizun publikoko sistema guztiekiko eta gizarte-babesarekin eta gizarte-politikekin loturiko esparru guztiekiko lankidetzak bultzatuko dute euskal herri-administrazioek eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek. Orobat, saiatuko dira beren jarduerak egon ez daitezzen mugatuta ahulezia- edo bazterkeria-egoeran, babesgabetasun-egoeran, desgaitasun-egoeran edota mendetasun-egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateentzat bakarrik pentsatutako plan, programa eta ekintza espezifikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatze hutsera, eta gainera, bultzatuko dute ekintza-politika eta ekintza-ildo orokorrek kontuan har ditzaten pertsona, familia, kolektibo eta komunitate horien premia eta eskariak, jardun publikoko edozein esparrutan.

II. KAPITULUA.

ELKARRIZKETA ZIBILA ETA SEKTORE PUBLIKOAREKIN ETA BESTELAKO AGENTEKIN ELKARRIZKETAN ARITZEKO BESTELAKO BALIABIDE EDO GUNEAK

7. artikulua.- Elkarrizketa zibila.

1.- Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraiki, Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareek, eta horien bitartez, pertsona, familia, kolektibo eta komunitate hartzaileek eta esku-hartze sozialaren protagonistek ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko aukera izango dute, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere Lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak kaltetu gabe.

2.- Sektore publikoaren eta Hirugarren Gizarte Sektoreko erakunde eta sareen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako prozesu formala da elkarrizketa zibila, betiere betearazpen- eta erregelamendu-mailan, eta elkarrizketa eta lankidetzaren helburua izanik sektore publikoak eta Hirugarren Gizarte Sektoreak esku-hartze sozialaren esparruan abiarazitako gizarte-politikak eta bestelako ekimenak orientatzea, bultzatzea eta ebaluatzea.

3.- Eusko Jaurlaritzak, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edota hura ordezkatzeko duen erakundearen bitartez, elkarrizketa (etengabea, operatiboa eta noranzko bikoia) izango du Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareekin, gobernu-ekintzari dagokionez, eta baita erakunde eta sareek esku-hartze sozialaren esparruan gauzatutako ekintzari dagokionez ere, baldin eta alderdietako edozeinek edota elkarrekin lankidetzan sustatu beharreko ekimen jakin batzuk sortzen baditu ekintza horrek, horien jarraipena eta ebaluazioa eginez.

4.- Era berean, eskubideak erabiltzeko zailtasun handienak dituzten pertsona, familia, kolektibo eta komunitateen eskubideak aitortzeko eta benetan erabiltzeko lanean aurrera egiteko helburua ere izango du elkarrizketa horrek.

5.- Foru aldundiek eta tokiko erakundeek ere, egokitzat jotako baliabideen bitartez, horrelako elkarrizketa eduki ahal izango dute dagokien lurraldean jarduerak gauzatzen dituzten Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareekin.

6.- Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek, halaber, elkarrizketa zibila sustatu ahal izango dute Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareekin, egokitzat jotako moduan.

8. artikulua.- Euskal herri-administrazioetako kontsulta-organoetan eta horien ekintzaren orientazioarekin lotutako aldiak aldiko ekimenetan parte hartzea.

Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizunak dituzten euskal herri-administrazioek dagokien lurraldean erreferentziazkoak diren Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareak honako hauetan sartu ahal izango dituzte:

- a) herri-administrazioetako kontsulta-organoetan, esaterako, kontseiluetan, eta
- b) politika eta planen diseinu, lantze, jarraipen eta ebaluazioarekin lotutako lan-jarduera espezifikoetan, aldiak aldikoetan edo aldiak behingoetan, edota sektore publikoko bestelako ekimenetan, bereziki, Hirugarren Gizarte Sektorea zuzenean eraginpean hartzen dutenean edo horrekin lankidetzan gauzatzen direnean.

9. artikulua.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean parte hartzea.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek parte hartuko dute Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, eta ordezkari bat izendatu ahal izango dute eskubide osoa izango duen kide gisa, organo hori erregulatzen duen arauan xedatutako moduan.

III. KAPITULUA

LANKIDETZA ETA ELKARLANA ESKU HARTZE SOZIALAREN ESPARRUKO POLITIKAK EGIKARITZEAN

10. artikulua.- Lankidetzaren erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarreraginerako guneetan.

1.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek eta sareek gizarte-politiketan izan beharreko partaidetza, politika publiko horien edozein fasean, egikaritze-fasea barne, lankidetzaren bitartez hezurmamituko da, Lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzeko araudian bildutako baldintzetan. Dagokion politika gauzatuko den arreta-arlo edo arreta-mailako ardura duen herri-administrazioak zehaztuko du partaidetza horren irismena, eta honako alderdietan gertatu ahal izango da:

- a) Parte-hartzea esku-hartze sozialaren esparruko erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan, eta sistemen elkarreraginerako guneen kudeaketan (esate baterako, gune soziolaboralean, bizileku- eta gizarte-alorrekoan, soziosanitarioan, hezkuntza- eta gizarte-alorrekoan, edota soziokulturalean).

b) Parte-hartzea erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan edota apurka-apurka erantzukizun publikoko gisa finkatzen ari diren zerbitzuen hornikuntzan (diseinatzea, ematea, ebaluatzea eta hobetzea).

c) Parte-hartzea (edozein kasutan, herri-administrazio arduradunak delegatutako partaidetza, araudi bidez zehaztuta dagoenean) erreferente-figurarekin eta kasu-koordinazioarekin lotutako funtzioak gauzatzeko prozesuan (esku-hartzearen diagnostikoa, programazioa eta ebaluazioa, lagun-egite soziala barne), betiere erantzukizun publikoko sistema bat baino gehiago eraginpean hartzen badute (besteak beste, gizarte-zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza).

d) Parte-hartzea pertsona eta familiei zuzendutako lagun-egite sozialean, esku-hartzearen prozesu osoan, eta nolana ere, pertsona hartzaileekin kontaktu-jarduerak hasieratik gauzatu (pertsona hartzaileak baliabideen jakinaren gainean egotea ahalbidetuko lukete), eta baita beste hainbat jarduera ere, hala nola hasierako harrera, informazioa, orientazioa eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara sartzeko zerbitzuetarako deribazioa.

2.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema, LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua eta gune soziolaborala erantzukizun publikoko sistema eta gune gisa taxutzen dira, zabaltzen denean erantzukizun publikoa eta ekimen publiko eta sozialaren nagusitasuna konbinatzen dituen eredu misto batetik abiatuta.

3.- Euskal osasun- eta hezkuntza-sistemek sustatuko dute Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek eta sareek parte hartzea hezkuntza- eta gizarte-alorreko gunean eta gune soziosanitarioan, horietan egiten baitu ekarpen handiena, eta baita Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen bestelako hainbat jardueratan parte hartzea ere, zehazki, bi sistema horiek osatzeaz gain, horien helburua lortzea ahalbidetzen dutenak, partaidetzarako behar diren formulak eta bideak gaituta.

11. artikulua.- Lankidetzaren erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarreraginerako guneen kudeaketan

Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal herri-administrazioek partaidetza-moduak sortzeko dagozkien neurriak hartuko dituzte, zehazkiago, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek honako hauetan parte hartzeko moduak: batetik, sistema edo gune bakoitzaren baliabide-sarearen plangintza- eta berrikuntza-funtzioetan, eta zehazkiago, horien diseinuan, plangintzan, ebaluazioan eta hobekuntzan; eta bestetik, prestazio eta zerbitzu esperimentalen diseinuan, egikaritzean, plangintzan, ebaluazioan eta hobekuntzan.

12. artikulua.- Lankidetzaren erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan.

1.- Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal herri-administrazioek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza) izan beharreko partaidetza antolatuko dute.

2.- Zehazkiago, partaidetza hori antolatuko da adierazitako erakundeek zerbitzu horiek jada ematen ari direnean, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa eratu baino lehen, pertsona hartzaileentzat eta erantzukizun publikoko sistemarako egin duten ekarpen historikoaren eta egun egiten duten ekarpenaren balioa eta esperientzia aitortzeko, erakunde horien eraketa eta finkapena alde batera utzi gabe.

3.- Nolanahi ere, izaera bereziko jarduera gauzatzen dutenean; izaera bereziko jardueratzat hartuko dira:

a) Erakunde gisa ezaugarri jakin batzuk dituztenean, zehazki: lurralde eta kolektibo jakin batekin lotuta egotea; pertsona hartzaileek erakundearen gobernuan ere parte hartzea; lor dezaketen edozein mozkin duten misioan inbertitzea eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan duten partaidetza interes orokorreko bestelako hainbat gizarte-jardueratako partaidetzarekin konbinatzea.

b) Duten esku-hartzearen ezaugarriek balioa eransten diotenean erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari, pertsona eta familiei arreta pertsonalizatua, integrala eta etengabekoa emanez (hainbat zerbitzu konbinatuta eta lagun-egite sozialeko funtzioa beren gain hartuta, baita horiek erantzukizun publikoko esparru edo sistema bat baino gehiago barnean hartzen dituztenean ere), eta beharrezkoa denean, baita bizitza osoko arreta emanez ere, premien bilakaerari aurrea hartuz eta erantzunetan berrikuntzak txertatuz.

4.- Euskal herri-administrazioek erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari balio erantsia ekartzen dioten praktikak sustatuko dituzte, zehazki, esku-hartze sozialaren esparruko arau sektorialetan jasotako arreta-ereduekin eta kalitate-irizpideekin lotutakoak; beste hainbat praktika ere bultzatuko dituzte, hala nola Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eta irabazi-asmoa duten enpresen misio edo helburu sozialean inbertitzea lor dezaketen edozein mozkin.

13. artikulua.- Lankidetzaren erreferente-funtzioan eta kasu-koordinazioan.

1.- Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal herri-administrazioek faboratuko dute Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek kasu-koordinazioko funtzioak gauzatzean izan beharreko partaidetza, horrelakoak aurreikusten dituzten erantzukizun publikoko sistemen esparruan, eta betiere zerbitzu eta prestazio horiez guztiez hornitzeko, eta horrenbestez, pertsona eta familia erabiltzaileei zerbitzu horiek esleitzeko ardura duten herri-administrazioek gainbegiratuta.

2.- Zehazki, erreferente-funtzioetako eta kasu-koordinazioko partaidetza hori faboratuko dute erakundeek pertsona eta familia hartzaileei eskaintzen dietenean arreta pertsonalizatu eta integrala, hainbat zerbitzu eta jarduera (batzuetan, esparru edo sistema jakin bat gaindi dezakete horiek, hala nola gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta osasuna) konbinatuz, eta baita etengabeko arreta ere, arreta hori pertsona eta familien premia, gaitasun eta lehentasunen bilakaerara egokituz.

14. artikulua.- Lankidetza interes orokorreko bestelako gizarte-jardueretan.

1.- Euskal herri-administrazioek eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek sinergiak bultzatuko dituzte esku-hartze sozialaren esparruan gauzatzen duten ekintzan, eta elkarrekin sustatuko dituzte, batetik, gizarte-egoera ahulenerako kolektibo eta komunitateen eskubide-sarbidea faboratzeko proiektuak, eta bestetik, gizarte zibil antolatua nahiz erantzukizun publikoko sistemen sendotzea faboratzeko proiektuak.

2.- Horretarako, elkarrekin eta beste gizarte-agente batzuekin partekaturiko proiektuen kudeaketan modu berritzaileak garatuko dituzte, premiak detektatzeko fasetik ebaluazio-faseraino, proiektu horiek erantzukizun publikoko sistemen esparruan garatzen direnean, bereziki, prestazio edo zerbitzu esperimentalei dagokienez, nahiz horietatik kanpo garatzen direnean, gizarte-premiei eta horien bilakaerari erantzuteko.

15. artikulua.- Herri-administrazioen eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana formalizatzeko tresnak.

1.- Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari dagokionez, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekiko lankidetza formalizatzeko, euskal herri-administrazioek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako hitzarmen-araubide bereizia hartu ahal izango dute beren gain.

2.- Halaber, euskal herri-administrazioek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako hitzarmenak eta lankidetzarako esparru-hitzarmenak formalizatu ahal izango dituzte, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza eta interes orokorreko bestelako gizarte-jarduerak –erakundeek abiaraziak– betetzeko, herri-administrazioek horrelakoak sustatzea egokitzen jotzen badute.

3.- 12.3 artikuluan zehaztutako baldintzetan izaera bereziko jardueraren bat duten erakundeekin erantzukizun publikoko zerbitzuez hornitzeko lankidetzan aritzeari gagozkiola, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen araberrako hitzarmenen bitartez formalizatu ahal izango da lankidetza hori.

16. artikulua.- Euskal herri-administrazioekin lankidetzan eta elkarlanean aritzen diren Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen betebeharrak.

1.- Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen hornikuntzan euskal herri-administrazioekin lankidetzan aritzen diren edota interes orokorreko bestelako hainbat gizarte-jardueratan elkarlanean diharduten Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Langile ordainduei lan-baldintza duinak bermatzea, erreferentziazko hitzarmen kolektiboak betez, eta baita langile boluntarioentzat egokiak diren baldintzak betez ere.

b) Gardenak izatea eta azalpenak ematea, barnean nahiz kanpoan.

c) Gauzatzen duten jardueraren eragina kontuan hartzea eta ebaluatzea, honako hiru elementu hauetan oinarrituta: lehenik, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ikuspegia; bigarrenik, genero-ikuspegia; eta hirugarrenik, azken hartzaileen eskubideak eta aukerak.

d) Erabakiak hartzeko, honako hiru ezaugarri hauek izango dituzten partaidetza-prozedurak erabiltzea: batetik, erakundearen izaera juridikora egokituta egotea, bestetik, kapital-jabetzan oinarrituta ez egotea, eta azkenik, erakundearen zati diren kolektiboak –baita hartzaileak ere– barnean hartzea, hainbat mailatan.

e) Kudeaketa-estilo demokratikoaz gain, kanpoko nahiz barneko alderdi interesdunekin harremanetan egoteko estrategia bat edukitzea.

f) Erakundeak bere antolamenduan, funtzionamenduan eta jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa benetan kontuan hartzea jarduteko moduan.

g) Ingurumena errespetatuz jardutea.

h) Zerbitzuak kondizio hobereenetan ematen direla bermatzea.

i) Gaitasun teknikoaren, metodologia- eta antolamendu-baliabideen eta jardun-gaitasunaren etengabeko hobekuntza sustatzea.

j) Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzea.

k) Herritarrei bakoitzak aukeratutako hizkuntza ofizialean arreta emateko ahalegina egitea.

l) Gobernu-organoaren eta kanpo-auditoretza baten onarpenaren eraginpean egongo diren urteko kontuak lantzea.

2.- Arestian aipaturiko betebeharrak ez betetzeak eragin dezake euskal herri-administrazioekiko lankidetzaren eta elkarlana deuseztatzea.

IV. KAPITULUA

EUSKADIKO HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREAREN SUSTAPENA

17. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia.

1.- Gizarte-politiken alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareekin lankidetzan, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edo hura ordezten duen erakundearen bitartez, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia bat landuko du; alderdietako bakoitzak landu eta sustatu beharreko jardunak eta alderdi guztiek lankidetzan landu eta sustatu beharrekoak barnean hartuko ditu estrategia horrek.

2.- Halaber, honako hauekin lotutako helburuak eta neurriak ere hartuko ditu barnean Estrategia horrek: Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakunde eta sareak indartzea, erakunde eta sare horien gizarte-ekarpena bultzatzea eta esku-hartze sozialaren esparru osoan dituzten funtzioak garatzea.

3.- Estrategiak honako alderdi hauek bildu beharko ditu, gutxienez: erakundeen gizarte-oinarria eta partaidetza garatzea; antolamendua eta kudeaketa sendotzea; Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea egituratzea eta erakundeen arteko lankidetzak; iraunkortasuna, autonomia, gardentasuna eta azalpenak ematea; inbertsioak eta azpiegiturak; lankidetzak sektore publikoarekin; lankidetzak enpresekin; Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen sustapena, zerga-sistema eta aitorpena.

4.- Eusko Jaurlaritzak dagozkion Sailetatik Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko abiarazitako ekintzak eta neurriak ere bilduko ditu Estrategiak, esku-hartze sozialaren esparruan nahiz jarduera ekonomikoaren sustapenari eta hori garatzen duten erakundeen sustapenari dagokienez. Zehazki, batetik, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareen funtzionamendua errazteko, eta bestetik, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakunde eta sareei lurraldez gairik esparruko eta interes orokorreko gizarte-jarduerak gauzatzeko lana samurtzeko gizarte-politiketan eskuduna den sailak sustatuko dituen diru-laguntzak eta laguntzak lotuko dira.

5.- Estrategiak adierazle jakin batzuk izango ditu, egikaritzearen urtean behingo jarraipenaz gain, Estrategiarako ezarritako indarraldia amaitzen denean emaitzen ebaluazioa egitea ahalbidetuko duten adierazleak, hain zuzen ere.

18. artikulua.- Euskal herri-administrazioen beste maila batzuk sustatzeko neurriak.

1.- Foru-aldundiek eta tokiko erakundeek Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko estrategiak landu ahal izango dituzte, bakoitzaren eskumeneko eremu geografikoei dagokienez.

2.- Foru-aldundiek eta tokiko erakundeek urteko deialdiak egin ahal izango dituzte, Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeei interes orokorreko gizarte-jarduerak egiten laguntzeko diru-laguntzen deialdiak, hain zuzen ere, bakoitzaren eskumeneko eremu geografikoetan, eta baita eremu horretako erakunde eta sareen funtzionamenduan laguntzekoak ere, beste hainbat sustapen-neurri hartzeaz gain.

19. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko neurriei buruzko txostena.

1.- Gizarte-politiken esparruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak urtean behingo txostenak egingo ditu, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakunde eta sareak sustatzeko ekintzari buruzkoa, eta horrez gain, erakunde eta sare horiek hobetzeko orientabideak ezarriko ditu.

2.- Urteko txosten hori publikoa izango da, eta sektore publikoak nahiz pribatuak bultzatutako sustapen-neurri guztiei buruzko informazio eguneratu eta sistematizatua bilduko du.

20. artikulua.- Erakundeek abiarazitako gizarte-jarduerak –interes orokorrekoak eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaz bestelakoak– sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten beste agente batzuei laguntzea eta horiekin lankidetzan aritzea.

1.- Euskal herri-administrazioek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten beste agente batzuekiko lankidetzan sustatu ahal izango dute, arreta berezia ipiniz aurrezki-kutxen, banku-fundazioen eta bestelako finantza-erakundeen gizarte-ekintzetan; horri dagokionez, honako hauek ezarriko dituzte:

a) Sinergiak, erakundeek gauzatzen dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaz bestelako eta interes orokorreko jardueretan.

b) Elkarrekiko eta beste erakunde batzuekiko aliantzak eta lankidetzak, Hirugarren Gizarte Sektorea bultzatzeko eta horrek gauzatzen dituen interes orokorreko gizarte-jarduerak sustatzeko, prestakuntza-ekintzen, laguntza teknikoaren, babesletzaren eta mezenasgoaren bitartez, edo proiektuetan lagunduz.

2.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek sortutako interes orokorreko gizarte-jarduera horien finantzaketan herritarrek eta enpresek parte hartzeko praktika eta kultura indartzeko ekimenak landu eta bultzatuko ditu Eusko Jaurlaritzak; besteak beste, honako hauek:

a) Herritarrei eta enpresei zuzendutako ekintzak: sentsibilizazio-ekintzak, jardunbide egokiak aitortzeko eta hedatzeko ekintzak, jardunbide berritzaileak sustatzeko ekintzak, zerga-pizgarriei buruzko informazioa emateko ekintzak, edota proiektu interesgarriak zabaltzeko ekintzak.

b) Erakundeei zuzendutako ekintzak: baliabideak eskuratzekoan prestakuntza eta laguntza teknikoa emateko ekintzak, komunikazioa, gardentasuna eta kontuak ematea, inpaktua ebaluatzeko ekintzak, alderdi interesdunei dagokienez, Europako programetarako eta nazioarteko funtsetarako sarbidea, eta bestelako estrategiak, betiere erakundeen jardueraren finantzaketan hirugarrenek izan beharreko inplikazioarekiko koherentziari eusten badiote.

21. artikulua.- Erakundeen azpiegiturak garatzen, inbertsioak egiten, kudeaketa hobetzen eta jarduera ekonomikoa bultzatzen laguntzeko neurriak.

1.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eta sareen ekarpena handia den esparruetan, eta betiere intentsitate eta konpromiso handiagoarekin, interes orokorreko gizarte-jardueren garapena ukitzen duten instalazio eta azpiegiturak izatea errazteko neurriak hartzen saiatuko dira euskal herri-administrazioak.

2.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eta sareen ekarpena handia den esparruetan, eta betiere intentsitate eta konpromiso handiagoarekin, inbertsioak egitea eta hobetzea eta jarduera ekonomikoak sustatzea errazteko neurriak hartzen saiatuko dira euskal herri-administrazioak.

22. artikulua.- Hirugarren Gizarte Sektorearen aitorpena, ekarpena eta egituraketa, eta erakunde eta sareen arteko lankidetzak bultzatzea.

1.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareek, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea eta horrek egiten duen ekarpena herritarrei eta gizarte-agenteei ezagutzera emateko ekimen bat diseinatu eta bultzatuko dute; ekimen horrek honako alderdi hauek bilduko ditu, besteak beste:

a) Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreari buruzko eta horrek kuantitatiboki euskal gizarteari egiten dion ekarpenari buruzko oinarritzko informazioa hedatzea.

b) Aldian behin sektore publikoarekin eta bestelako gizarte-agenteeekin harremanetan jartzea.

c) Komunikabide sozial publiko eta pribatuetako informazio-ekintzetan parte hartzea, eta komunikabide horiekin akordioak formalizatzea, lankidetzan hainbat komunikazio-ekintza gauzatzeko.

d) Egun esanguratsu baten inguruan urtean behingo komunikazio-kanpaina bat egitea.

e) Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak gauzatzea, ikastetxeetan hirugarren sektoreko erakunde eta sareen partaidetza izanik.

f) Aldian behin Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen biltzar bat egitea, sektoreko erakunde eta sareetarako eta bestelako agenteetarako erreferentzia gisa balio dezan.

2.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea osatzen duten erakunde eta sareen artean lankidetzan aritzea eta informazioa eta jardunbide egokiak elkartrukatzea sustatuko dute Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko sareek, eta edozein motatako baliabideak aprobeztatzea ere sustatuko dute. Horrez gain, errealitatea elkarrekin aztertzeko ekimenak sustatuko dituzte, eta estrategia bat diseinatu eta bultzatuko dute erakundeak berak eta beren egituraketa indartzeko, egiten duten ekarpena aitortzeko eta beste sektore eta eragile batzuekin aliantzak sendotzeko.

23. artikulua.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen ekarpena aitortzea eta sektore publikoko bestelako neurriek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorean duten inpaktua ebaluatzea.

1.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen aurretiko presentzia eta ekarpen garrantzitsua duten esparruetan ekimen publikoa eta enpresa-ekimena sustatzeko neurriak bultzatzen dituenean sektore publikoak (hala nola arauak edota planak), neurri horiek Hirugarren Gizarte Sektorean duten inpaktuaren ebaluazio bat egingo du alde aurretik, horrelakoen garapenak gizarte-sarea eta horren ekarpena suntsitzen lagun ez dezan eta bateragarria izan dadin gizarte zibil antolatua finkapen eta sustapenarekin.

2.- Hainbat sistemaren (hala nola Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema, LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua) zabalkundearen planifikazioak eta ebaluazioak kontuan hartuko dute erakunde horiek benetan egiten duten eta egin dezaketen ekarpena, baita Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen presentzia aktibo eta garrantzitsua duten sistemen arteko elkarreraginerako guneen planifikazio eta ebaluazioak ere.

24. artikulua.- Euskal herri-administrazioek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea.

1.- Euskal herri-administrazioek, bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen eta enpresen arteko lankidetzak garatzeko kondizioak sortzen lagunduko dute, betiere esku-hartze sozialaren esparruan.

2.- Horretarako, honako hauek sustatu ahal izango dituzte, besteak beste:

a) enpresetara eta Hirugarren Gizarte Sektorera zuzendutako sentsibilizazio-ekimenak;

- b) elkar ezagutzeko eta lankidetzaren proposamenak elkartrukatzeko guneak sustatzea;
- c) laguntza-, prestakuntza- eta bitartekotza-tresnak garatzea;
- d) ekimenak bi norabideetan kanalizatzea, erakundeetatik enpresetara eta enpresetatik erakundeetara, hain zuzen ere;
- e) martxan jarritako lankidetzaren ekimenak hedatzea;
- f) lankidetzaren modu guztietarako zerga-pizgarriak garatzea; eta
- g) esku-hartze sozialaren esparruan, eta Hirugarren Sektorerako diru-laguntzen bitartez, lankidetzaren garatu diren eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaz bestelakoak eta interes orokorrekoak diren ekimenak sustatzea.

3.- Aurreko paragrafoetan jasotako lankidetzaren bultzatzeko ekimenen helburuak honako hauek izango dira, besteak beste:

- a) babesletza- eta mezenasgo-ekintzak, donazio-ekintzak, marketin-ekintzak (kausarekin) edo beste hainbat ekintza, puntualak edo ez puntualak, enpresen baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituztenak, esku-hartze sozialaren esparruan Hirugarren Gizarte Sektorerako erakundeek sorturiko, interes orokorreko eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzaz kanpoko ekimenak garatzeko; eta
- b) boluntariotza korporatiboko ekintzak, partekaturiko proiektuak abiarazteko hitzarmenak eta bestelako ekintzak, lankidetzaren egonkorragoa eskatzen dutenak, eta erantzukizun sozialeko ikuspegiarekin eta enpresa eta erakundeen misioarekin lotuta daudenak, kapital ekonomikoaren, giza kapitalaren eta gizarte-kapitalaren mobilizazioarekin.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.

Lege hau indarrean hasten denean, abenduaren 11ko 283/2012 Dekretu bidez araututako Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia deituko zaio, eta orain arteko araudi erregulatuak guztia aplikatuko zaio Legean aurreikusitakoaren aurka ez doan orotan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Ordezkaritza Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean.

Lege honen 9. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean ordezkaturako gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundetzat hartuko dira, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 4.1c).8 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia.

Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean hasi eta urtebeteko epearen barruan, 17. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea Sustatzeko Estrategia landu eta onartuko du.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eroldaren erregulazioa.

Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean hasi eta urtebeteko epearen barruan, 5. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen erolda landu eta erregulatuko du.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.- Legea indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.